

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Edozein proiektutan bezala, sustapenak garrantzi handia du, mezu limurtzailea bidaltzen baitu, bezeroak erakartzen baititu eta, gainera, ikusgarritasuna eskaintzen baitu ingurunean. Hau da, bezeroei segurtasuna eta konfiantza emango die gurekin harremanetan jartzeko edo gure produkturen bat erosteko. Horretarako, gure estrategia hau izango litzateke:



Lehenik eta behin, institutuaren barruko salmentei begira, jolas-orduan produktu fresko eta ekologikoekin saltoki txiki bat jartzea litzateke gure asmoa. Institutuko kide guztiek merkatuko prezioa baino merkeago eskuratu ahal izango dute gure salmenta-zerbitzua, gure helburua ekonomikoa baino sozialagoa baita. Prezio baxuak eskaintzean, bezero gehiago erakarriko genituzke eta elikadura osasungarriagoa sustatuko genuke. Horrez gain, boluntarioak zein erosleak erakartzeko, ikastetxean publizitate-kartelak itsatsi eta klaseko informazio-hitzaldiak emango ditugu.

Ikastetxeakoak ez diren bezeroentzat, sare sozialen bidez ezagutaraziko genuke gure ekimena. Horien bidez, gure baratzeari buruzko informazioa emango genuke, baita gure aurrerapenak eta lorezaintzako aholku txikiak ere @ekOrtu perfilean.



Horrela, ezagutzera emango ginateke, eta jendeak ikusiko luke proiektu txikia dela, baina helburu handi eta garrantzitsuak dituela.

Proiektuari buruzko informazio guztia biltzen duen atal bat jarriko da institutuaren weborri ofizialean, baratzearen aurrerapenen berri izan dezaten. Irtenbide horrek, halaber, ikasleen gurasoei eskola-proiektu honen berri eman diezaieke. Hala, seme-alabak gure proiektu jasangarrian parte hartzera bultza ditzakete. Leioako Barandiaran institutuaren webgunea honako hau da: <http://www.institutobarandiaran.com/>.